



# **GOBERNU BILERA**

**Prentsa-Txostena  
Erabaki nagusiak**

## **CONSEJO DE GOBIERNO**

**Dossier de Prensa  
Acuerdos destacados**

**Vitoria-Gasteiz, 2022ko martxoak 22**

**Vitoria-Gasteiz, 22 de marzo de 2022**

## Segurtasuna

### **ERTZAINZAK ETA UPV/EHUK BESTE LANKIDETZA-HITZARMEN BAT SINATUKO DUTE EUSKADIKO GORROTO-DELITUEI BURUZKO URTEKO TXOSTENA EGITEKO**

Gobernu Kontseiluak oniritzia eman du UPV/EHUko Giza Eskubideen eta Botere Publikoen Katedrarekin beste lankidetzeta-hitzarmen bat sinatzeko, Euskadiko gorroto-delituei buruzko urteko txostena eta Europarekin alderatzeko analisia egiteko.

Ertzaintzaren eta UPV/EHUren ustez, gorroto-delituen esparruko lankidetzeta eta ezagutzak partekatzea, bai eta bi erakundeen artean zerbitzuak ematea ere, oso interesgarria da bi erakundeentzat, bai eta euskal gizartearentzat ere.

UPV/EHUko Giza Eskubideen eta Botere Publikoen UNESCO katedrak Ertzaintzaren laguntza izan du azken bost urte hauetan gorroto-delituen azterketaren arloan, eta, batez ere, era horretako delituen erregistroak, estatistikak eta analisiak aurkeztu dizkio. Lankidetzeta hori hitzarmenen bidez jaso da 2018tik, gorroto-delitu horien Euskadiko egoerari buruzko txostena egiteko. Gorroto-delitutzat hartzen dira, besteak beste, delitu arrazistak, xenofoboak eta sexu-orientazioagatik eta -identitateagatik, ideologiagatik eta orientazio politikoagatik, sinesmenengatik edo erlijioagatik, dibertsitate funtzionalagatik edo aporofobiagatik egiten direnak. Horrez gainera, txostenean gaiari buruzko Europarekiko analisi konparatiboa ere egiten da.

Eusko Jaurlaritzak urtero bidaltzen du txosten hori Eusko Legebiltzarrera, legebiltzar-taldeek ezagutu eta azter dezaten.

## Gobernantza Publiko eta Autogobernua

### GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILBURUAK IMVREN TRANSFERENTZIARI BURUZKO AKORDIOAREN BERRI EMAN DIO JAURLARITZARI

- **Olatz Garamendik Transferentzien Batzorde Mistoak prestazioa kudeatzeko hitzarmenari buruz hartutako erabakiaren xehetasunak helarazi dizkio Gobernu Kontseiluari**

Olatz Garamendi Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailburuak Gobernu Kontseiluari jakinarazi dio Euskal Autonomia IMVren Gizarte Segurantzaren prestazio ez kontributiboaren kudeaketa bere gain hartzeko hitzarmena ezartzeko erabakia. Transferentzia hori Estatuko Administrazioaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko Transferentzien Batzorde Mistoan adostu eta ziurtatu zen, joan den asteazkenean, martxoaren 16an.

Transferentziaren ondorioz, Eusko Jaurlaritza arduratuko da Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrera izapidetzeaz, aitortzeaz eta ordaintzeaz. Honenbestez, Euskal Autonomia Erkidegoan prestazio hori orain arte gauzatzeko kudeaketa gomendioari amaiera emango zaio. Aurrerantzean, IMVa Diru-sarrerak Bermatzeko Errentan (RGI) integratu beharko da, Euskadin gizarte laguntzako eskumenetik eskaintzen baita. Herritarrei begira, egoera berriaren ondorioz, Euskadin laguntza publikoaren tramitazioa eta ordainketa esku berean egongo dira, Lanbiden.

Jaurlaritzak IMVren transferentzia bere gain hartzea ahalbidetzen duen hitzarmena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (EHAA) argitaratzea izango da hurrengo urratsa.

## Ekonomia eta Ogasuna

### EUSKO JAURLARITZAK AURREIKUSTEN DU EUSKAL EKONOMIA % 4,5 HAZIKO DELA 2022AN ETA % 4,1 2023AN

- **Ukrainako gerraren ondorioek 2,2 hamarren jaitsi dute aurreko aurreikuspenaren hazkunde-maila 2022rako**

Eusko Jaurlaritzak euskal ekonomiarako hazkunde-aurreikuspenak berrikusi ditu, Ukrainako gerraren ondorioek eraginda; horren arabera, 2022an EAEko BPGd % 4,5 haziko da —aurreko aurreikuspena baino 2,2 hamarren azpitik—, eta 2023an % 4,1 haziko dela aurreikusten du. Enpleguari dagokionez, 2022an langabezia-tasa %9,5ekoa izango da, eta 16.600 enplegu sortuko dira -aurreko datuek %9,2ko langabezia-tasa eta 11.500 enplegu sortzea planteatzen zuten-, eta 2023an, berriz, langabezia % 9,1ekoa izatea eta 8.000 enplegu sortzea aurreikusten da. Pandemiak eragindako arazoak bideratzen hasita ziren eta konfiantza eragile ekonomikoengana itzultzen ari zen une batean, Errusiak Ukraina inbaditu izanak erabat aldatu du 2022-2023 aldirako mundu osoko egoera.

Gerraren eta herrialde erasotzaileari ezarritako zigorraren ondorioek kalte egiten diote euskal ekonomiari, eta euskal ekonomian askotariko eraginak dituzte. Berehalakoena **osagai energetikoen prezioek** azkar gora egitea izan da. Izan ere, gerra hasi zenetik, petrolioaren, gasaren eta elektrizitatearen prezioak izugarri igo dira, eta horrek energiaren erabilera intentsiboa egiten duten euskal enpresei eragiten die. Jarduera batzuk gogoratzearen, garraioa, metalurgiak, altzairutegiak, arrantza eta papergintza aipa daitezke. Horietako batzuek jarduera eten egin dute martxoan, prezioaren igoerari aurre egin ezin ziotelako.

Beste inpaktu bat **lehengaien eta industria-metalen urritasunarekin** lotuta dago, Errusia haien erreferentziazko esportatzailea baita. Hori da, besteak beste, nikelaren eta paladioaren kasua, eta ez da ahaztu behar Ukrainak zerealak hornitzen dizkiela Europako eta Afrikako herrialde askori. Beraz, manufacturek eta nekazaritzako elikagaien industriak jasango dute eragina. Gainera, **ziurgabetasuna** eragile ekonomikoaren artean zabaltzen ari da, eta zuhertasunak gastuari eustera bultzatzen du. Familien kasuan, inflazioak erosteko ahalmena kentzen du, eta, beraz, kontsumo pribatua murriztu egingo da. Enpresen kasuan, haien bazkide komertzialek eskaria murriztuko dute ziurgabetasun horrengatik, eta horri hornidura-kateetan berriro agertuko diren tentsioak gehitu beharko zaizkio.

**Eskariaren** aldetik, egoera berria aurrekoaren desberdina da kanpo-saldoaren jokatzeko moduan. 2021ean, euskal esportazioek emaitza bikaina izan zuten, eta BPGd-ari ekarpen positiboa egin zitzaion bigarren seihilekoan. Horrengatik, aurreko koadro makroekonomikoan aldeko joera horri eusten zitzaion, eta 2022an ekarpen positibo berri bat espero zen. Hala ere, kanpo-eskari txikiagoa, ziurgabetasun handiagoa, inflazio handia eta botila-lepoak ematen diren

egungo testuingurua dela-eta, pentsa daiteke merkataritza-saldoa zertxobait negatiboa izan daitekeela aurten, eta positiboa, txikia bada ere, datorren urtean.

Familiek euren kontsumoa apalduko dute inflazioaren igoeragatik eta gerrak ekarri duen ziurgabetasunagatik. Horren ondorioz, pandemian pilatutako aurrezpena kontsumoan beranduago zehaztuko da. Hori dela eta, kontsumo pribatuaren zenbatespena jaitsi egin da, abenduko egoeraren % 6,6tik gaur egungo % 4,8ra. Aitzitik, kontsumo publikoak 2021eko hedapen-mailari eutsi beharko dio, eta orain aurtengo urterako igoera lau hamarren hazi dela ikusten da.

Testuinguru berriak kapital-eraketa gordinean duen eragina ere oso esanguratsua da, antzeko arrazoiengatik: ziurgabetasuna, lehengaien garestitzea, eskariaren murrizketa eta eskaeren atzerapenak. Kasu horretan, aurreikuspena jaitsi egin da, abenduko % 6,7tik egungo % 5,0ra.

**Eskaintzaren** azterketan, egoerak okerrera egin du sektore nagusi guztietan. Guztien gainetik industriaren beheranzko zuzenketa nabarmentzen da, aurreko % 6,6tik egungo % 3,9ko hazkundera igaro baita. Hasiera batean, horixe izango da unean uneko zailtasuna gehien nabarmenduko duen ekoizpen-jarduera, baina gainerakoei ere eragingo die. Eraikuntzak intentsitatea galduko du lehengaien garestitzeagatik; horrek ekoizpena mugatuko baitu. Azkenik, zerbitzuek, bereziki familien eskaria asetzerantz bideratutakoek, kontsumo pribatuaren beherakada nabaritutako dute.

Esan bezala, inflazioa da gerrak Europa ekialdean izan duen ondoriorik nabarmenetako bat. BPGd-aren deflaktorea aurten % 4,2ra igotzea espero da, urteko batez bestekoan, nahiz eta hurrengo urtean % 2,3raino jaitsiko den, urte amaiera % 2tik beherakoa izanik. 2021az geroztik prezioek igo egin dutenez, urte horretako BPGd nominala aurreikusitakoa baino gehiago hazi da. Urte honetarako, BPGd erreala 2021ean baino nabarmen gutxiago handituko den arren (% 4,5, iazko % 5,6aren aldean), prezioen igoerak BPGd nominala % 8,8 igotzea eragingo du. 2023an, aurreikusitako igoera % 6,5ekoa da.

Gatazkaren iraupenak eta Europak zerga- eta diru-gaietan ematen duen erantzunak definituko dute gure ekonomiak hurrengo hiruhilekoetan izango duen bilakaera.

## EUSKAL EKONOMIARAKO AURREIKUSPENAK

Urte arteko aldaketa-tasak

	2022	2023
<b>EAEko BPGd</b>	<b>4,5</b>	<b>4,1</b>
Azken kontsumo-gastua	4,4	3,7
Etxeetako kontsumo-gastua	4,8	4,0
Herri-administrazioen kontsumo-gastua	3,2	2,6
MOF	5,0	4,3
Barne-eskaria	4,6	3,8
Barne-eskariaren ekarpena	4,8	3,9

Kanpo-eskariaren ekarpena	-0,3	0,2
Lehen sektorea	-1,4	-5,5
Industria	3,9	4,2
Eraikuntza	3,4	4,0
Zerbitzuak	4,8	4,2
Balio erantsi gordina	4,4	4,1
Produktuen gaineko zergak	4,6	3,9
BPGd nominala	8,8	6,5
BPGd-aren deflaktorea	4,2	2,3
Enplegua (PTTC)	2,8	1,8
Lanean dauden pertsonak (PRA)	1,8	0,8
Langabezia-tasa	9,5	9,1

---

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza

## Ekonomia eta Ogasuna

### **EUSKO JAURLARITZAK PREMIAZKO FINANTZAKETA-NEURRIAK ANTOLATZEN DITU FINANTZEN EUSKAL INSTITUTUAREN ETA ELKARGI SGR-AREN BIDEZ**

Ekonomia eta Ogasuneko sailburu Pedro Azpiazuk Finantzen Euskal Institutuaren eta ELKARGI SGRaren bitartez gerraren ondorioak arintzeko berehala antolatuko diren finantzaketa-neurrien berri eman du Gobernu Kontseiluan. Horrela, FEIk eta ELKARGI SGRak hitzarmen bat sinatuko dute 10 M euroko finantzaketa-lerro bat aktibatzeko (behar izanez gero handitu daitekeena), eta, gainera, FEIk bere finantzaketa-eskaintzaren aukera osoa jarriko du nolabaiteko kalteak izan dituzten enpresa guztien eskura, finantza-erakundeekin batera finantzatzeko modalitatean, haien beharretara egokitutako soluzioak bilatzeko. Tresna biak bateragarriak dira.

Gerraren ondorioak hemen daude jada, eta oso testuinguru aldakorrean gaude, gehienbat Eusko Jaurlaritzaren mende ez dauden testuinguru-hipotesiekin. Garrantzitsua da diagnostiko egoki bat egitea eta orain hartzen diren erabakiak kontsekuenteak izatea eta benetako beharretara egokituak.

Europar eta Estatuaren arazo estrukturalagoetarako edo epe luzekoetarako soluzioen zain, hala nola denbora-esparru espezifiko berri bat argitaratzea edo energia-kostua jaisteko neurriak, honako neurri hauek aktibatuko dira:

#### **10 M EUROKO KREDITU-LERROA** (*eskaeren arabera handitu daiteke*)

- FEI - ELKARGI SGR hitzarmena
- 50.000 euro eta 1 M euro arteko maileguak: hiru urterako epearekin eta 12 hilabetera arteko gabealdiarekin, 12 hilabeteko Euriborraren interes-tasarekin gehi % 1,25eko diferentzialarekin.
- Ukrainako, Errusiako edo Bielorrusiako enpresak bazkide komertzial gisa dituzten enpresa txiki eta ertainek epe laburrera/ertainera zirkulatzaila finantzatzea, baldin eta enpresa horien jardura eta transakzio ekonomikoak egungo gatazka armatuaren eraginpean badaude.
- Inportatzaile errusiarrek, bielorrusiarrek edo ukrainarrek ordaindu gabe utzitako fakturak —2022ko otsailaren 1etik aurrera gehienez ere sei hilabeteko antzinatasuna dutenak— finantzatzea.
- Errusiako, Bielorrusiako edo Ukrainako hornitzaileei 2022ko otsailaren 24a baino lehen egindako eskaeren aurrerakinak finantzatzea, merkantzia itundutako datan jaso ez bada.
- Azken 3 urteetan Errusiari, Bielorrusiari edo Ukrainari behin eta berriz egindako salmentak finantzatzea.

## **% 50EKO BATERAKO FINANTZAKETA FEI-REN ETA FINANTZA-ERAKUNDEEN ARTEAN**

Bestalde, merkatuen ziurgabetasunak finantzaketarako aukera garestiagoa edo mugatuagoa izatea edo Elkargiren linearen bidez planteatutako zenbatekoek kaltetutako enpresen beharrianak zenbatekoari dagokionez ez asetzea aurreikusten dela ulertuta, FEIk bere finantzaketa-eskaintzaren aukera guztiak kaltetuak suertatu diren enpresa guztien esku jartzen ditu, finantza-erakundeekin batera finantzatzeko modalitatean, enpresen beharretara egokitutako soluzioak bilatzeko.

Operazio horiek ez dute baldintza zehatz eta finkorik. Gerraren ondorioz enpresei sortu zaizkien beharrak asetzea da kontua, eta, beraz, zenbatekoak, epeak eta interes-tasa enpresak bere operazioak egiteko erabiltzen duen FEarekin batera finkatu behar ditu.



## Ekonomia eta Ogasuna

### **EUSKO JAURLARITZAK KREDITU-LERROAK BERRITU AHAL IZANGO DITU 800 MILIOI EUROREN TRUKE**

Gobernu Kontseiluak Jaurlaritzaren kreditu-lerroak berritzeko baimena eman du gaur, 800 milioi euroan, eta urtean zehar formalizatuko dira.

Kopuru hori, aurreko urteekin alderatuta, 2021ean hasitako murrizketaren jarraipena da, pandemiak eragin zitzakeen diruzaintza-beharrak zirela-eta 2020an izan zen hazkunde handiaren ondoren. 2020an 1.700 milioi euro formalizatu ziren. 2021ean, 1.200 milioi euro, eta, orain, 2022an, aurreko urteetan formalizatzen zen 800 milioi euroko kopurura itzuli gara.

Kreditu-eragiketa horien gehieneko epea urtebetekoa da.

## Hezkuntza

### HEZKUNTZA SAILAK 10,3 MILIOI EURO BIDERATUKO DITU ARABAN ESKOLA-GARRAIOKO IBILBIDEAK KONTRATATZEKO

- **Arabian eskola-garraioko 140 ibilbide kontratatzeke lehiaketa publikoa irekiko du Hezkuntza Sailak**

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran baimendu du, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, 10.344.620,88 euroko kopurua bideratzea Hezkuntza Sailaren menpeko ikastetxe publikoetako eskola-garraio zerbitzua kontratatzeke, Arabako Lurralde Historikoan. Zehazki, 140 ibilbide lizitatuko dira lurralde horretan, Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta DBH-ko ikasleei zuzenduak.

Ibilbide horietako bakoitzak lote bat osatzen du (kontratu bat). Kontratuek 20 hilabeteko iraupena izango dute, uztaila eta abuztua kontuan hartu gabe, eta luzatzeko aukera izango da.

Ibilbide hauen esleipenerako lehiaketan parte hartu nahi duten garraio enpresek, zerbitzua garatzeko beharrezko den administrazio-baimena izan beharko dute –Bidaiarien Errepideko Garraioari buruzko 4/2004 Legean aurreikusia-. Horrez gain, eskola-garraioko eta adin txikikoen garraiorako segurtasun baldintzei buruz indarrean den araudiak ezartzen dituzten gutxieneko baldintzak ere bete beharko dituzte.

Eskola-garraioko zerbitzu osagarriak hezkuntzarako sarbidearen unibertsaltasuna bermatzen du. Hezkuntza Sailak kudeatzen duen eskola garraioa erabiltzeko eskubidea dute bizilekutik ikastetxera 2 kilometro edo gehiagoko distantzia duten ikasleek, Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen zikloan. Gutxieneko distantzia hori 4 kilometro edo gehiagokoa izan beharko da DBHko bigarren zikloan eta Oinarrizko Lanbide Heziketan, eta 500 metrokoa besterik ez mugikortasun urriko ikasleen kasuan.

Egun, ikastetxe publikoetan ikasten ari diren 3.103 ikasle –aipaturiko baldintzak betetzen dituztenak- garraiatzen dira egunero Araban, lurralde honetako 39 ikastetxeri zerbitzua ematen dieten 140 ibilbideetan.

Lizitatu beharreko ibilbide kopuru altua aintzat hartuta, eta enpresa txiki eta ertainei kontrataziorako sarbidea errazteko helburuz, lurralde historiko bakoitzeko kontratazio-espeditente bat lizitatuko da.

## Hezkuntza

### **1,2 MILIOI EURO ULIBARRI HIZKUNTZA-NORMALKUNTZARAKO PROGRAMARAKO**

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, onartu du 2022-2023 ikasturterako gehienezko diru-laguntzak zehazten dituen Agindua, hizkuntza-normalkuntzarako Ulibarri Programan parte hartzen duten edo hartu nahi duten ikastetxeei zuzendutakoak. Halaber, Programan sartzeko edo jarraitzeko baldintzak zehaztu eta dedikazio-orduak finkatzen dira. Deialdi honek 1.225.000 euroko diru-kopurua du.

Ulibarri Programako ikastetxeetako hizkuntza normalkuntzarako proiektuek eskoletako egunerokoan euskararen erabilera sustatzea dute helburu nagusi. Ikastetxe hauek, eragile guztien artean euskararen erabilera sustatzeko proiektu bat adosten dute. Ikastetxeko Normalkuntza Proiektua egiteko, egoera aztertu eta diagnosia egiten dute zentro hauek. Ondoren, lau urterako proiektua (HNP) zehazten dute, eremuz eremu honako hauek definituz: helburuak, abiatuko diren jarduera motak, arduradunak, ebaluaziorako adierazleak eta denbora tarteak.

Ulibarri Programaren baitan garatzen diren hizkuntza normalizazioko proiektuak Ikastetxeko Hizkuntza Proiektuarekin loturan diseinatuko dira. Izan ere, egun pentsaezina da euskararen erabilerarako normalizazio proiektu baten garapenak harremanik ez izatea goragoko maila batean dagoen Hizkuntza Proiektuan hartzen diren erabakiekin. Era horretan, normalizazio proiektuak (orain arte eskola-orduetatik kanpo eragiten zuenak) eskola-orduetan ere eragin behar du, euskararen didaktikarekin eta erabilitako metodologiarekin erlazionatuta dauden eremuak indartuz.

2021-2022 ikasturtean, Euskadiko 409 ikastetxek hartzen dute parte Ulibarri programan: 235 ikastetxe publikok eta 174 itunpekok.

## Kultura eta Hizkuntza Politika

### EUSKO JAURLARITZAK 2,43 MILIOI EURO BIDERATUKO DITU IKUS-ENTZUNEZKO EKOIZPENAK DIRUZ LAGUNTZERA

Gobernu Kontseiluak ikus-entzunezko produkziarako diru-laguntzen deialdia onartu du gaur. Laguntza horien helburua da ikus-entzunezko lanen ekoizpena sustatzea eta kulturaren ikuspegitik hain garrantzitsua eta beharrezkoa den ikus-entzunezko azpiegitura indartzen eta sendotzen laguntzea.

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak 2.430.000 milioi euro bideratuko ditu, iaz baino 70.000 euro gehiago, modalitate hauetako proiektuak bultzatzera:

- **Film luzeen produkziarako laguntzak: 2,27 miloi euroko** aurrekontua honela banatuko da:
  - **Zinemarako diren fikziozko film luzeak ekoizteko laguntzak: 1.160.000 euroko** aurrekontua 60 minutu edo gehiagoko iraupena duten eta zinema-aretoetan merkatal ustiapenerako diren obrak finantzatzeko erabiliko da.
  - **Aurrekontu txikiko zinemarako diren fikziozko film luzeen produkziarako laguntzak:** Aurrekontua 300.000 euro baino txikiagoa duten lanak finantzatzeko dira beti ere jatorrizko bertsioa euskarazkoa badute. Guztira **250.000 euroko** aurrekontua du atal honek.
  - **Zinemarako diren animaziozko film luzeen produkziarako laguntzak: 600.000 euro** bideratuko dira edozein hizkuntzatan dauden eta zinemarako diren animaziozko film luzeak egitea sustatzeko.
  - **Sortze-dokumental film luzeen produkziarako laguntzak:** Edozein hizkuntzatan dauden sortze-dokumental luzeak egitea sustatuko da. Errealitatetik hartutako gaia duten proiektuak izan beharko dira, originalak eta gai zehatz bati buruzko ikerketa edo azterlana beti ere gutxienez merkataritza-ordu beteko iraupena dutenak eta telebista edo zinemarako direnak. Laguntza modalitate honetarako aurrekontua **260.000 eurokoa** da.
- **Film laburren produkziarako laguntzak:** Edozein hizkuntzatan dauden eta zinemarako diren film laburrak egitea sustatuko da beti ere film laburtzat hartuta edozein euskarritan egindako 30 minutu baino gutxiagoko lanak. Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak **160.000 euro** bideratuko ditu laguntza hauetara.

lazko deialdian 25 dirulaguntza eman ziren, horietatik 6 zinemarako diren fikziozko film luzeak ekoizteko, bat aurrekontu txikiko fikziozko film luze zinematografiko baterako, beste bat animaziozko film luze zinematografiko baterako, 8 sortze-dokumental film luzeen produkziarako eta 9 film laburren produkziarako.

Eskabideak aurkezteko epea apirilaren 12tik aurrera hilabetekoa izango da.

## Kultura eta Hizkuntza Politika

### EUSKO JAURLARITZAK 2022KO EUSKADI LITERATURA SARIEN DEIALDIA ONARTU DU

Gobernu Kontseiluak, gaurko bileran, 2022ko Euskadi Literatura Sariak arautzen eta deitzen dituen agindua onartu du. Urteko sari horiek 2021 urtean argitaratutako literatur lanen kalitatea saritzen dute, eta, horrela, literaturen alorreko euskal idazleen, itzultzaileen eta ilustratzaileen sorkuntza sustatzen dute. Gainera, saritutako lanak zabaltzeko aukera ematen dute, eta egileak eta beraien gainontzeko lanak ezagutarazten laguntzen dute.

Euskadi Literatura sariak udazkenean jakinaraziko dira eta zazpi modalitatetan banatzen dira:

- **Euskarazko literatura:** jatorriz euskaraz idatzitako literatura-sorkuntzako lanak.
- **Gaztelaniazko literatura:** jatorriz gaztelaniaz idatzitako literatura-sorkuntzako lanak.
- **Euskarazko haur eta gazte literatura:** jatorriz euskaraz idatzitako haur eta gazte literatura-sorkuntzako lanak.
- **Euskarazko literatura itzulpena:** beste edozein hizkuntzatatik euskarara itzultitako literatura lan berriak. Saria eskuratzeko aukera izango dute, baita ere, beste itzultzaile profesional batek gutxienez hamar urte lehenago argitaratutako lan beraren beste itzulpen batekin editatzen diren lanek.
- **Literatura lanaren ilustrazioa:** liburu tankeran argitaratutako literatura lanak (albumak, liburu ilustratuak, nobela grafikoak, komikiak), ilustraziozati esanguratsua dutenak. Lanaren zati ilustratua originala izan behar da.
- **Euskarazko saiakera:** jatorriz euskaraz idatzitako fikziorik gabeko lanak.
- **Gaztelaniazko saiakera:** jatorriz gaztelaniaz idatzitako fikziorik gabeko lanak.

Sari bakoitzak 18.000 euro ditu, eta 4.000 euro gehiago jaso ditzakete lana beste hizkuntza batean argitaratzen bada. Euskarazko Literatura Itzulpenaren irabazleak 18.000 euro jasoko ditu.

Modalitate bakoitzeko epaimahaiak erabakiko du sariak nori eman. Epaimahaikide bakoitzak hautagaitza bat edo bi aurkeztu ahal izango ditu.

## Kultura eta Hizkuntza Politika

### GOBERNU KONTSEILUAK 2022KO GURE ARTEA SARIEN DEIALDIA ONARTU DU

Artistek euskal arte garaikideari eta euskal kulturari egiten dioten ekarpenaren aitortpena dira Gure Artea sariak eta aurtengo deialdia gaur onartu du Gobernu Kontseiluak. Arte plastikoak eta ikusizkoak sustatzeko helburuz ematen diran sari hauek hiru modalitatetan banatzen dira eta guztira 56.000 euro banatuko dira, iaz baino 2.000 gehiago:

- **Ibilbide artistikoa aitortzeko saria (20.000 euro, orain arte baino 2.000 gehiago):** lan eta ibilbide osoa aintzat hartuta, egindako lan sortzaileagatik eta kulturari eta arte garaikideei egindako ekarpenagatik nabarmendu den artista aitortzeko saria da. 20.000 euroko saria jasoko du, orain arte baino 2.000 euro gehiago.
- **Sorkuntza-lana aitortzeko saria (18.000 euro):** azken urteak aintzat hartuta, bere jarduera artistikoagatik eta sortzaileagatik eta sorkuntza garaikideari egindako ekarpenagatik nabarmendu den artista edo artista-taldea aitortzeko saria.
- **Arte plastiko eta ikusizko arloan agenteek egindako lana aitortzeko saria (18.000 euro):** Euskal Autonomia Erkidegoko arte plastiko eta ikusizkoen arloan egindako ekarpenagatik, alegia, kulturaren balio-katearen faseetan (ikerketa, prestakuntza, sorkuntza-ekoizpena, sustapena-hedapena eta banaketa) horiek sustatzeko jarduerak garatuz egindako lanagatik, nabarmendu diren pertsonak aitortzeko saria.

Epaimahaikideek aurkeztuko dituzte beraien hautagaiak eta ondoren hautagaitzak aztertu eta epaia emango dute. Honako hauek osotuko dute aurtengo Gure Artea sarien epaimahaia: Damaris Pan Vega, Fernando Perez Gómez, Jesus Maria Lazkano Perez, Maite Garbayo Maeztu eta Mikel Lertxundi Galiana.

Gure Artea sariak 2022 banatzeko ekitaldia, urtero bezala, udazkenean egingo da.

## Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa

### **TMS PROGRAMAK 717.000 EURO BIDERATZEN DITU TURISMOA MERKATURATZEKO ETA SUSTATZEKO LAGUNTZETARA**

Turismoa Merkaturatzeko eta Sustatzeko TMS programaren helburua turismo-produktu berriak eta turismo-proiektzio handiko ekitaldiak diseinatzea, abian jartzea, sustatzea eta merkaturatzea da. Euskal Autonomia Erkidegoaren kokapen turistikoa finkatzea du helburu.

Ekitaldi honetan, TMS programara bideratutako aurrekontua 717.000 EUROKOA da. Zenbateko hori hainbat laguntza-lerrotan banatuko da.

Helburuen artean, Euskadin garatzen diren turismo-produktuak sortzen eta abian jartzen, sustatzen eta merkaturatzen laguntzea dago; zehazki, Euskadin garatzen diren eta turismo-proiektu lehiakor, arduratsu eta iraunkorrak garatzen, merkaturatzen eta gure helmuga bereiziko duten baliabideak bultzatzen laguntzen duten ekimenak. Bestalde, diruz lagundu ahal izango dira Euskadin egiten diren kultura-, gastronomia- eta kirol-ekitaldiak, proiektzio nazionala eta nazioartekoa dutenak, Euskadiren irudia eta posizionamendu turistikoa sendotzen laguntzen dutenak. Atal honetan, turismo-helmuga eta Euskadi Basque Country marka sustatzen eta Euskadi turismo-helmuga seguru gisa finkatzen laguntzen duten ekitaldiak bultzatuko dira. COVID-19 pandemiak sortutako egoeraren aurrean, ekitaldiak presentzialak, birtualak edo hibridoak izan daitezke.

Aurreko deialdiarekin alderatuta, bi aldaketa esanguratsu daude. Euskadin garatzen diren turismo-produktuak sortzeko eta abian jartzeko, sustatzeko eta merkaturatzeko laguntzari buruzko atalari dagokionez, eta pandemiaren ondoren sortzen den esparru berriari erantzuteko, dagoeneko sortuta dauden turismo-produktuen birorientazio estrategikoari, marketin-plan baten diseinuari eta prestaketari buruzko gastuak sartu ahal izango dira. Euskadin egiten diren kultura-, gastronomia- eta kirol-ekitaldietan, proiektzioa nazioan eta nazioartean dutenak eta Euskadiren irudia eta posizionamendu turistikoa sendotzen laguntzen dutenak, eta Euskadi Basque Country marka turistikoaren eraginean emaitza hobekak lortze aldera, beharrezkotzat jotzen da gutxienez 5. edizioa ospatzen duten edota hiru egun baino gehiago irauten duten ekitaldiak modu esanguratsuan babestea.

Proiektuak baloratzeko, Sailaren esperientzia-programen ildoekin bat datozen turismo-produktuak lehenetsiko dira, bereziki enogastronomiarekin, irteerekin, ibilbideekin, bilerekin, euskal itsasertzarekin, naturarekin eta kulturarekin lotutakoak.

## Seguridad

### **LA ERTZAINZA Y LA UPV/EHU SUSCRIBIRÁN UN NUEVO CONVENIO DE COLABORACIÓN PARA ELABORAR EL INFORME ANUAL SOBRE LOS DELITOS DE ODIOS EN EUSKADI**

El Consejo de Gobierno ha autorizado la suscripción de un nuevo convenio de colaboración con la Cátedra de Derechos Humanos y Poderes Públicos de la UPV/EHU para la realización de un informe anual sobre los delitos de odio en Euskadi y análisis comparativo con Europa.

La Ertzaintza y la UPV/EHU consideran que la colaboración y el intercambio de conocimientos en el ámbito de los delitos de odio, así como la prestación de servicios entre ambas entidades, es de sumo interés para las dos instituciones y por ende, para la sociedad vasca.

La Cátedra UNESCO de Derechos Humanos y Poderes Públicos de la UPV/EHU ha recibido durante el último lustro la colaboración de la Ertzaintza en el estudio particular de los delitos de odio, principalmente aportando los registros, estadística propia y los análisis realizados de esta tipología. Esta colaboración se ha plasmado en forma de convenios desde 2018, con el objetivo de elaborar un informe de la situación en Euskadi de estos delitos de odio: racistas, xenófobos, por orientación e identidad sexual, ideología y orientación política, creencias y prácticas religiosas, diversidad funcional, aporofobia, etc. Además el informe realiza un análisis comparativo con la realidad europea en la materia.

Todos los años, el Gobierno Vasco envía al Parlamento este informe para su conocimiento y análisis por parte de los Grupos Parlamentarios.



## Gobernanza Pública y Autogobierno

### LA CONSEJERA DE GOBERNANZA PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO PONE EN CONOCIMIENTO DEL GOBIERNO VASCO EL ACUERDO SOBRE EL TRASPASO DEL IMV

- **Olatz Garamendi traslada al Consejo de Gobierno los detalles del acuerdo adoptado en la Comisión Mixta de Transferencias sobre el convenio para la gestión de la prestación**

La consejera de Gobernanza Pública y Autogobierno, Olatz Garamendi, ha puesto en conocimiento del Consejo de Gobierno el acuerdo de establecimiento del convenio para la asunción, por la comunidad autónoma de Euskadi, de la gestión de la prestación no contributiva del Ingreso Mínimo Vital (IMV), prestación no contributiva de Seguridad Social. La transferencia fue acordada y certificada en la Comisión Mixta de Transferencias Administración del Estado-Comunidad Autónoma del País Vasco, reunida el pasado miércoles 16 de marzo.

